

## UDAL-BATZARRA 11/07

### UDAL-BATZARRAK, 2007ko ABENDUAREN 20ean EGINDAKO OHIKANPOKO BILKURARI DAGOKION AKTA

#### **PARTAIDEAK:**

#### **ALKATEA:**

Pedro M<sup>a</sup> Peñagarikano Labaka

#### **ZINEGOTZIAK:**

Eider Garmendia Arrieta  
Gorka Otxoa-Aizpurua Arrizabalaga  
Alazne Ruiz Luluaga  
Gregorio Zuaznabar Urkola  
Fidel Azpiroz Arrillaga  
Jose Ignacio Otermin Garmendia

#### **BEHIN BEHINEKO IDAZKARIA:**

M<sup>o</sup> Jose Sanchez Plaza

ANOETAko Udaletxean, 2007ko abenduaren 20ean iluntzeko zazpirak direnean eta aurrez dei egin ondoren, Udal-Batzarra elkartu da, ohikanpoko Bilkura egin asmoz Pedro M<sup>a</sup> Peñagarikano Labaka alkate jaunaren mahaiburutzapean eta alboan aipatzen diren Zinegotzi guztiek parte hartzen dutelarik; Joseba Agirrezabala Ayestaran eta Ainitze Etxaniz Iraola zinegotziak lan arazoak direla eta ezin etorria adierazi dute eta behin behineko idazkaria, M<sup>a</sup> Jose Sanchez Plaza andrea.

#### **1.- “NAZIO BAT, SELEKZIO BAT” MOZIOA ESAIT, EUSKAL SELEKZIOAREN ALDEKO IRITZI TALDEAK AURKEZTUA.**

Alkate jaunak ESAITek auzketuriko ondorengo mozioa irakurri egiten du:

*“NAZIO BAT, SELEKZIO BAT. MOZIOA. Ofizialtasunaren bidean, kirol esparruan eginiko saiakeren eta aldarrikapen saioen aurka, 2007. urtean Espainiako Gobernuak izandako jarrera erasotzaile oso nabarmena izan da. Besteak beste, Paulino Luesmak, Espainiako Gobernuak, EAEn duen ordezkariak, Euskadiko 19 Federaziotako estatutuetako artikulua batzuen aurka jarritako helegitea –EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak onartua-, Euskal Herriko futbol selekzio jokalariek ofizialtasunaren aldarrikapenerako, Venezuelan ateratako pankartarengatik, jasandako lintxamendu mediatiko eta politikoa, e.a.*

*Eraso guzti hauek, euskal herritarren eta gure ordezkari diren instituzioen aldetik, erantzun sendo bat eskatzen dute. Euskal jendartearen nagusiki hedaturik dagoen ofizialtasunaren nahiak eta beharrak, instituzioen babesa behar du. Hau dela eta, abenduan sentimendu hau barnebiltzen dituen hainbat nazioarteko lehiaketak daudela eta, Udalbatza honek honako adierazpena egiten du:*

*1.- Euskal Herria, Araba, Behe Nafarroa, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Nafarroa Garaia eta Zuberoak osatzen duten nazioa da. Nazioa den heinean, Euskal Herriko kirolariak, beren nazioaren koloreekin euskal selekzioa ordezkatzuz, nazioarteko txapelketetan parte hartzeko eskubidea dute.*

2.- Udalbatza honek eskubide horren ukazioa arbuiatzen du; batetik, kirolariei, Euskal Herria ordezkatzuz, gainontzeko munduko nazioetako kirolarien antzera, ofizialki lehiatzea ukatzen zaielako, eta bestetik, euskal herritarrok nazioartean gure ordezkariak izateko dugun eskubidea urratzen duelako.

3.- Euskal Herriari ofizialki ordezkaria izateko eskubidea ukatzen zaionez, Euskal Herriaren kanpo proiektzioa eta, finean, nazio baten existentzia ukatu nahi da. Beraz, Udalbatza honek euskal herritarron eskubide kolektibo eta indibidualen urraketa arbuiatzen du.

4.- Zentzu honetan, herritarrei dei egiten diegu ESAITek, abenduaren 29an, Bilbon, “EUSKAL HERRIA, nazio bat, selekzioa bat” lelopean antolatutako ekimenetan, eta, zehazki, arratsaldean egingo den manifestazioan parte hartzeko, egun hori euskal selekzioaren (ofizialtasunaren) aldeko aldarrikapenerako eguna izan dadin.

5.- Udalbatza honek, herritarrek, abenduaren 29an Bilboraino aldarrikapena eraman dezaten erraztuko du, eta erabaki honen berri herritarrei jakinarazi die.- Euskal Herrian, 2007ko azaroan”.

EAJ/PNVko bozeramailea den Fidel Azpiroz Arrillaga jaunak zera adierazten du:

“Gu, guztiz ados gaude testorekin bakarrik 4. puntuan aldaketa batzuk egingo genituen eta 5. puntua kendu, beraz, gure kontramozioa ondorengoa izango litzateke:

“Ofizialtasunaren bidean, kirol esparruan eginiko saiakeren eta aldarrikapen saioen aurka, 2007. urtean Espainiako Gobernuak izandako jarrera erasotzailea oso nabarmena izan da. Besteak beste, Paulino Luesmak, Espainiako Gobernuak, EAEn duen ordezkariak, Euskadiko 19 Federazioetako estatutuetako artikulua batzuen aurka jarritako helegitea –EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak onartua-, Euskal Herriko futbol selekzioa jokalariek ofizialtasunaren aldarrikapenerako, Venezuelen ateratako pankartarengatik, jasandako lintxamendu mediatiko eta politikoa, e.a.

Eraso guzti hauek, euskal herritarron eta gure ordezkari diren instituzioen aldetik, erantzun sendo bat eskatzen dute. Euskal jendartearen nagusiki hedaturik dagoen ofizialtasunaren nahiak eta beharrak, instituzioen babesa behar du. Hau dela eta, abenduan sentimendu hau barnebiltzen dituen hainbat nazioarteko lehiaketa daudela eta, Udalbatza honek honako adierazpena egiten du:

1.- Euskal Herria, Araba, Behe Nafarroa, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Nafarroa Garaia eta Zuberoak osatzen duten nazioa da. Nazioa den heinean, Euskal Herriko kirolariek, beren nazioaren koloreekin euskal selekzioa ordezkatzuz, nazioarteko txapelketetan parte hartzeko eskubidea dute.

2.- Udalbatza honek eskubide horren ukazioa arbuiatzen du; batetik, kirolariei, Euskal Herria ordezkatzuz, gainontzeko munduko nazioetako kirolarien antzera, ofizialki lehiatzea ukatzen zaielako, eta bestetik, euskal herritarrok nazioartean gure ordezkariak izateko dugun eskubidea urratzen duelako.

3.- Euskal Herriari ofizialki ordezkaria izateko eskubidea ukatzen zaionez, Euskal Herriaren kanpo proiektzioa eta, finean, nazio baten existentzia ukatu nahi da. Beraz, Udalbatza honek euskal herritarron eskubide kolektibo eta indibidualen urraketa arbuiatzen du.

4.- Zentzu honetan, herritarrei dei egiten zaie, abenduaren 29an, Bilbon, Euskal Herria nazio bat selekzio bat lelopean antolatu diren ekimenetan parte hartzeko, egun hori euskal selekzioaren ofizialtasunaren aldeko aldarrikapenaren eguna izan dadin. Euskal Herrian, 2007ko azaroan”.

Alkate jaunak ESAITek aurkezturiko mozioa bozketara eraman du ondorengo emaitzak lortuz:	El Sr. Alcalde somete a votación la moción presentada por ESAIT obteniendo el siguiente resultado:
--	--

Aldeko botuak: BOST, EAE talde politikoarenak	Votos a favor: CINCO, del grupo político ANV
---	--

Aurkako botuak: BAT ERE EZ Abstentzioak: BI, EAJ/PNV talde politikoarenak.	Votos en contra: NINGUNO Abstenciones: DOS, del grupo político EAJ/PNV.
Emaitzak ikusirik, ESAITek aurkezturiko “Nazio bat, selekzio bat” mozioa onartu egiten da.	A la vista de los resultados obtenidos en la votación queda aprobada la moción presentada por ESAIT, “Nazio bat, selekzio bat”.

**2.- “EUSKAL HERRIAREN ESKUBIDEEN ALDE, EGITASMO POLITIKO GUZTIEI AUKERA DEMOKRATIKOA HERRI GISA ERANTZUTEKO GARAIA DA” MOZIOA ANOETAKO ANV TALDEAK AURKEZTUA.**

Alkate jaunak bertaratutakoei ondorengo adierazten die:	El Sr. Alcalde manifiesta a los presentes lo siguiente:
---	---

*“Mozio hau 18/98ko epaiaren inguruko mozioa da, sententzia atzo irakurri zen eta honen inguruan zenbait euskaldunen eskubideak urratzen eta zapaltzen direlako aurkezten dugu ondorengo hau:*

**“EUSKAL HERRIAREN ESKUBIDEEN ALDE, EGITASMO POLITIKO GUZTIEI AUKERA DEMOKRATIKOA HERRI GISA ERANTZUTEKO GARAIA DA.**

*55 auziperatu, 46 atxilotze agindu, 500dik gora espetxe urte 18/98ko epaiak herri honen eskubideen ukazioan sakondu eta Euskal Herriaren eraikuntzaren alde lanean ari diren herritar eta kolektiboak kriminalizatzeko oinarri berriak ezarri ditu. Ez da urrats isolatua, urte luzez Euskal Herriaren independentzia bultzatzen duen mugimendu politikoaren aurkako jazarpenaren segida da. Euskal Herritarren eskubide zibil eta politikoen aurkako eraso estrukturala dago horren oinarrian, gero eta talde edo jarduera gehiago bere bitan biltzen duena. Gazteen aurkako epaiketa eta zigorra hortxe dago eta beste batzuk hasiko dira datozen hilabeteotan (Udalbiltza, Egunkaria, GGAA-Askatasuna, Batasuna).*

*Guzti honek estrategia jakin bati erantzuten dio, espainiar Estatuak, PSO Eko Gobernuak, Euskal Herriaren eraikuntzako zutabe nagusiak kolpatzen ari da, konponbide demokratikoari ateak itxi eta independentziaren aldeko hautua kriminalizatzen.*

*Argi eta garbi esan dezagun. Ez da demokraziarik, ez dago justiziarik Gaur eta hemen espainiar Estatuak, PSO Eko Gobernuak, herri honi eskaintza bakarra egiten dio: errepresioa eta Konstituzioa. Gaur eta hemen Konstituzioa inposazen zaigu, Euskal Herria ukatuz, euskal herritarren eskubideak urratuz, euskal herritarren eskubideak urratuz, gure etorkizuna libreki erabakitzeko eskubideari ateak itxiz. Gaur eta hemen, Euskal Herriaren eskubideen alde lan egiten duen orori, gatazkaren konponbide demokratikoaren alde lan egiten duen orori, herri honentzako independentzia nahi duen orori errepresioa ezartzen zaio.*

*Hori da PSO Eren estrategia eta helburu jakina du, herri honi iruzur berri bat ezarri nahi dio. Gatazka luzatuko duen iruzurra, gatazkaren sorburu den ukazio marko hau indartzea duelako helburu. Gatazkaren konponbideari ateak ixtea bilatzen duen iruzurra, independentziari ateak itxita euskal herritarroi aukera politiko guztien artean gure etorkizuna erabakitzeko eskubidea ukatzen digulako.*

*18/98ko sumarioa, epaiketa eta zigorra ez zen posible izango espainiar Estatuak PNVren laguntza izan ez balu, eta egun PNVren laguntza ezinbestekoa zaio PSO Eri herri honi iruzur berria ezartzeko. Orain 30 urte gertatu bezala Euskal Herria Espainiako zati izan dadin egiten ari da PNVk lan. Hori da PSO Ek*

*PNVrekin batera herri honi ezarri nahi dion iruzurra eta horretarako kolpatzen du Euskal Herriaren eskubideen alde lan egiten duen oro, independentsimoa jokaleku politikotik atera nahi du iruzur berria ezarri asmoz.*

*Une erabakiorra bizi dugu, aldaketa politikoaren ataria izan daitekena. Euskal Herriak ez du iruzur zahar berri bat onartuko, Euskal Herriak konponbide demokratikoa behar du. Eta horretara goaz, konponbideari ateak irekitzera, herri honek egitasmo politiko guztien artean, independentzia barne, erabakitzeko eskubidea errespetatua eta bermatua izan dezan.*

*18/98ko epaia zein Euskal Herriaren aurkako eraso orokorrari behar bezalako erantzuna emateko garaia da. Erasoen aurrean erantzun eta Euskal Herriaren eskubideen alde lan egiten jarraituko dugu. Eta hori da euskal herritar orori zabaltzen diogun deia.*

*Aipatu guztia kontutan hartuta honako mozioa aurkezten dugu udal osoko bilkurak eztabaida eta onar dezan,*

- 1. Udal honek irmoki salatzen du 18/98ko epaia eta atzean dagoen Euskal Herriaren aurkako eraso. Espainiar Estatuak, epai honen bitartez, Euskal Herriaren eraikuntzaren alde lanean ari diren herritar eta oilektiboak kriminalizatzen ditu, Euskal Herriaren independentzia bultzatzen duen mugimendu politikoa jazartzen du. Independentismoa jokaleku politikotik atera nahi du herri honi iruzurra ezarri asmoz.*
- 2. Udal honek argi adierazi nahi du: Espainiar estatuan ez dago demokraziarik ezta Euskal Herriarentzako etorkizuni ere. Espainiar estatuak bere Konstituzioa eta salbuespen legedia inposatzen du Euskal Herria ukatzeko, konponbide demokratikoari ezetz esateko, herri honen eskubideei ateak ixteko.*
- 3. Udal honek konponbide demokratikoa aldarrikatzen du, euskal herritarrok egitasmo politiko guztien artean bere etorkizuna libreki erabakitzeko eskubidean oinarrituko den konponbidea, hain zuzen ere. Hortaz, udal honek ez du onartuko herri honi iruzurrik inposatzea.*
- 4. Udal honek bat egiten du Euskal Herriaren eskubideen alde lan egiteagatik 18/98 sumarioan auziperatu eta zigortuak izan diren gizon emakume guztiekin, eta elkertasun zein babes osoa agertzen die.*
- 5. Udal honek 18/98ko epaia eta Euskal Herriaren aurkako etengabeko erasoei erantzuteko antolatuko diren mobilizazio guztiekin bat egin eta horietan parte hartzeko deia luzatzen die herritarrei.*
- 6. Udal honek Euskal Herriaren eskubideen alde lan egiten jarraitzeko deiarekin bat egin eta horretara animatzen ditu udalerriko talde, kolektibo eta herritar oro.*
- 7. Onartutakoaren berri emango zaio herritar orori zein komunikabideei. Euskal Herrian, 2007ko abenduan, ANV taldea”.*

*EAJ/PNVko bozeramailea den Fidel Azpiroz Arrillaga jaunak zera adierazten du:*

*“Irakurri den mozio horrekin ez gaude ados eta ondorengo mozio alternatibo hau aurkezten dugu:*

*Anoetako EAJ/PNVren udal taldeak, 18/98 prozedura judizialaren inguruan, pleno honetan eztabaidatu eta onartzeko aurkezturiko moziaren aurrean, honoko mozio alternatiboa aurkezten dugu:*

- 1. Epaketa honen izaera politikoa gogor salatzen dugu. Prozedura judizial honen abiapuntua politikoa eta demokraziaren aurkakoa da.*

2. *Sistema demokratiko batean, errugabetasun presuntzioa eta berme prozesalak ezinbesteko eskubideak dira eta errespetatuak izan behar dute. Zuzenbide estatu batetan pertsonak beraien ekintzengatik epaitzen dira, ekintza hauek delitu osagai diren neurrian. Prozesu honetan berriz, talde armatuko kide izateak esan nahi duenaren irakurketa zabal eta interesatua medio, guztiz onargarriak diren ekintzak legez kanpokoak izatera pasatzen dira.*
3. *Pertsona ororen giza eskubideen defentsa eta herri honi bere etorkizuna erabakitzeke zor zaion errespetua, bizi dugun gatazka politikoari eta pakegintzari aurre egiteko ezinbesteko bi zutabe dira.*
4. *Zentsu honetan, auziperatuei, beraien senitartekoei nahiz auziperaturiko enpresa eta taldeei gure laguntza eskeini nahi diegu”.*

Alkate jaunak bertaratutakoei  
ondorengo adierazten die:

El Sr. Alcalde manifiesta a los  
presentes lo siguiente:

*“Beraz bi mozio izango genituzke. Nik, gure mozioari eutsiko nioke, besteak beste, zenbait garaitan hemen dugun bezala, zuek ordezkatzeko duzuen partidak jokaera bikoitza izan du eta ez oso eredugarria zenbait kasutan. Orain dela denbora gutxi Madrilen apoiatu duzuen “apoyamos y respaldamos a todas las fuerzas y cuerpos de seguridad y a todos los componentes de la Administración de Justicia en la lucha contra el terrorismo”. Batetik hemen salaketa egiten ari zarete eta bestetik “a todas las fuerzas y cuerpos de seguridad” Madrilen. Guk ere horrelako zailtasunean gauza asko esan dezakegu, terrorismoa ez da alde batekoa bakarrik, hemen jartzen du “lucha contra el terrorismo y para derrotar a Eta”; argi eta garbi jartzen du eta herri honetan beste aldeko terrorismoak hil, bahitu eta desagertu egin arazi du, jende asko gelditu da ahalztuta”.*

Alkate jaunak EAE k aurkezturiko  
mozioa bozketara eramane du ondorengo  
emaitzak lortuz:

El Sr. Alcalde somete a votación la  
moción presentada por ANV obteniendo el  
siguiente resultado:

Aldeko botuak: BOST, EAE talde  
politikoarenak  
Aurkako botuak: BI, EAJ/PNV talde  
politikoarenak.  
Abstentzioak: BAT ERE EZ

Votos a favor: CINCO, del grupo político  
ANV  
Votos en contra: DOS, del grupo político  
EAJ/PNV.  
Abstenciones: NINGUNA

Ondoren, EAJ/PNVk aurkezturiko  
mozioa bozketara eramane du ondorengo  
emaitzak lortuz:

Acto seguido se somete a votación  
la moción presentada por el grupo político  
PNV obteniendo el siguiente resultado:

Aldeko botuak: BI, EAJ/PNV talde  
politikoarenak.  
Aurkako botuak: BOST, EAE talde  
politikoarenak  
Abstentzioak: BAT ERE EZ

Votos a favor: DOS, del grupo político  
EAJ/PNV.  
Votos en contra: CINCO, del grupo  
político ANV  
Abstenciones: NINGUNA

Emaitzak ikusirik, EAEek  
aurkezturiko “Euskal Herriaren eskubideen

A la vista de los resultados  
obtenidos en la votación queda aprobada la

alde, egitasmo politiko guztiei aukera demokratikoa. Herri gisa erantzuteko garaia da” mozioa onartu egiten da.	moción presentada por ANV “Euskal Herriaren eskubideen alde, egitasmo politiko guztiei aukera demokratikoa. Herri gisa erantzuteko garaia da”.
---	--

### 3.- ALLEGI “PASO NIBELA” KENTZEKO PROPOSAMENAREKIN ADOSTASUNA (ADIF).

Alkate jaunak bertaratutakoei ondorengo adierazten die:	El Sr. Alcalde manifiesta a los presentes lo siguiente:
---	---

*“ADIFek aurkezturiko proiektuaren inguruan bi bilera behintzat egin dira. Aurrena proiektua gu sartu aurretik aurkeztu zuten; espedientea ikusten baduzue, orain dagoen bezala, zuzenean pasa eta Allegiko etxeak gelditzen ziren zubi txiki horrekin bakarrik. Honi erantzun zitzaion, “código técnico”ak hori ez zuela onartzen eta ea aldatu zazaketen. Gero beste proiektu bat egin zen, Tapiko zubia aprobetxatuz Agerre ingurutik bueltan soroen gainekaldetik egin zen bide bat eta lurjabekin egindako bilera batean eskatu zitzaien proiektu hori, horrela egin behar baldin bazen ahalik eta karrilaren kontra pasatzea eta eskatu zitzaien ere zuba, orain perpendikularki dagoen zubi hori pixka bat okertu eta radioa ere pixka bat txikiagoa izatea. Baita ere eskatu zitzaien jabe bakoitzari zenbat terreno kentzen zitzaien esatea eta posible balitz bidea markatzea eta terreno horiek nekazaritza intensiborako eremua zela adieraztea. Horrela hartuz, dekretua bidali zitzaien. ADIFekoek eskatu digute dekretua ez dela nahiko eta plenez onartzea. Dokumentu hau lehen bidalitakoa baino zertxobait osatuagoa dago. Gero hor, 5 metroko bidea planteatzen dute, kaminoaren zabalera, baina zenbait lekutan, terrenoaren afekzioa 11 edo 11,5 metrotaraino iristen da. Egin dezatela alegin terreno horren afekzioa ahalik eta txikien izaten nekazal intensiboa dela kontsideratuz. Bakoitzaren terrenoak markatzea eta nola geratu den trazatzea eta zubiaren ikerketarekin jarrai dezatela. Zerbait esateko?*

Jose Ignacio Otermin Garmendia, zinegotzi jaunak galdetzen du:

*“Serbidunbrea utzi behar dena da tren karrila, karretera gehi serbidunbrea?”*

Alkate jaunak erantzuten du:

*“Lau, karrila eta gero bidea. Egiten den bide horrek aldapa batzuk baditu eta nolabaiteko ranpa batzuk harrapatzen ditu. Ranpa horiek ahalik eta estuen izan daitezzen eta beste modurik balego hobe”.*

Herritar batek galdetzen du:

*“Zergaitik trenaren bi aldetara utzi behar da 5 metrotako zabalera? Bestalde, espropiazioak baleude, jabeei ahalik eta terreno gutxien kentzea eskatuko nuke; aldiz, terreno horiengatik dirua jasotzeko aukera badago beste eremu batean beste terreno batengatik trukaketa egiteko aukera izatea ere eskatuko nuke”.*

Alkate jaunak erantzuten du:

*“ADIFek dio, hasiera batean 5 metro behar dituela, hala ere, Udala saiatuko da ahalik eta terreno gutxien ken dezateka eskatzen. Bestalde, zure ikuspegia, lurraren kudeaketan, jakinaraziko zaie”.*

EAJ/PNVko bozeramailea den Fidel Azpiroz Arrillaga jaunak zera adierazten du:

*“Lehengo bidea 3 metro ditu, ze arrazoi dago orain 5m izateko? Nik lehengo bidearen zabaleroa (3m) mantentzea eskatuko nuke, ahalik eta terrono gutxien galtzeko”*

Alkate jaunak erantzuten du:

*“Adibidez, Allegiko zubia 2 metro eta zerbait da “Código Técnico”ak eskatzen du, bonberoak pasatzeko zabaltzen da 3 metrotaraino aparte daude alderdi bakoitzean 2 espaloi etab”.*

Jose Ignacio Otermin Garmendia, zinegotzi jaunak galdetzen du:

*“Legea betetzeko egin behar baldin bada, esaten ari gara gero eta gutxiago mugitu lurrak, posible balitz hori eskatzea”.*

Alkate jaunak erantzuten du:

*“Villabonan ere, zabalero horrekin egiten dute. Hemen proiektuan argi gelditzen dena da bakarrik bidea izango dela”.*

Gregorio Zuaznabar Urkola, zinegotzi jaunak esaten du:

*“ Nik uste dut, eskatu behar zaiela afektuatekin kontatu izatea eta proiektu hau meioratzeko azaltzen diren gauzak onartzea”.*

Alkate jaunak erantzuten du:

*“ADIFekoa etorri zenean oso disposizio ona ekarri zuen. Nik meiorak jarriko nituzte: 1.Ahal den afekzio gutxienean izatea. 2. Zubiarena ikusteko. 3. Terreno jabeen dirua eta beste lurrekin trukea egitea.4. Dekretua berrestea. 5. Proiektua aurrera dijoan heinean gurekin harreman permanentea izatea”.*

Alkate jaunak gaia bozketara eraman du, bertaratuek aho batez hurrengo akordioa hartuz:

Lehena.- 2007ko urriaren 31ko alkatetza ebazpena, ADIF enpresak luzatutako proposamena ontzat ematen duena, berrestea:

El Sr. Alcalde somete a votación el asunto de forma que por unanimidad de los presentes, se adoptan los siguientes acuerdos:

Primero.- Ratificar el decreto de alcaldía de 31 de octubre de 2007, por el que se da por buena la propuesta realizada por ADIF:

“DEKRETUA	“DECRETO
<p>Anoetan, 2007ko urriaren 31ean.</p> <p>Ikusirik ADIF enpresak burutu duen ikerketa Anoetako udalerritik igarotzen den PK 601/185 trenbide pasagunea kentzeko aukerari buruz.</p> <p>Kontuan hartuz 2007ko urriaren 18an egindako Hirigintza eta Batzorde Informatiboak luzaturiko diktamena, ADIF-en proposamena ontzat emanaz eta hurrengo eremuak argitzea eskatuz:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Terreno jabe bakoitzari zenbateko lur azalera hartuko zaion aztertzea.</li> <li>• Posible izanez gero, terreno bertan errepidea markatzea.</li> </ul> <p>Ikusirik lurjabe batek eskatu duela aktan idatziz jasota azaldu dadila, azterketa eremua Anoetako Planeamenduko Arau Subsidiarioen arabera nekazaritza intentsiborako eremua dela.</p> <p>Kontuan hartuz azterketa hori egiteak ez duela Udalarentzat inolako gasturik.</p> <p>Dagozkidan eskuduntzaz baliatuz</p> <p><b>HONAKOA EBATZI DUT:</b></p> <p>Lehena: Hirigintza eta Obra Batzordeko proposamena ontzat ematea eta ADIF enpresari eskatzea hurrengo eremuak argitzea:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Terreno jabe bakoitzari zenbateko lur azalera hartuko zaion aztertzea.</li> <li>• Posible izanez gero, terreno bertan errepidea markatzea.</li> </ul>	<p>En Anoeta, a 31 de octubre de octubre de dos mil siete.</p> <p>Visto el estudio realizado por ADIF para la supresión del paso a nivel P.K. 601/185 en el término municipal de Anoeta.</p> <p>Considerando el dictamen emitido por la Comisión Informativa de Urbanismo y Obras de 18 de octubre de 2007, dando por bueno el estudio realizado por ADIF y solicitando esclarecer los siguientes extremos:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Estudiar la superficie a ocupar a los propietarios de terreno.</li> <li>• Si fuere posible marcar la carretera en el propio terreno.</li> </ul> <p>Visto que uno de los propietarios de terreno ha solicitado que se recoja expresamente en el acta que el ámbito se encuentra calificado por las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Anoeta como de agricultura intensiva.</p> <p>Considerando que la realización de dicho estudio no repercute gasto alguno al Ayuntamiento.</p> <p>En uso de las atribuciones conferidas,</p> <p><b>HE RESUELTO:</b></p> <p>Primero: Dar por buena la propuesta de la Comisión Informativa de Urbanismo y Obras y solicitar a ADIF esclarecer los siguientes extremos:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Estudiar la superficie a ocupar a los propietarios de terreno.</li> <li>• Si fuere posible marcar la carretera en el propio terreno.</li> </ul>

<p>Bigarrena: Ebazpen honen berri ematea Udaltzarak egingo duen hurrengo bilera arruntean.</p> <p>Honela agindu eta sinatu du Pedro M<sup>a</sup> Peñagarikano Labaka alkate jaunak; eta neuk, idazkariak, fede eman”.</p>	<p>Segundo: Dar a conocer la presente resolución en la próxima sesión del Ayuntamiento Pleno.</p> <p>Lo manda y firma el Sr. Alcalde D. Pedro M<sup>a</sup> Peñagarikano Labaka, de lo que yo, la Secretario, doy fe”.</p>
--	--

Bigarren.- ADIF enpresari hurrengo eremuak aztertu eta argitu ditzala eskatzea:

- Zubiaren ikerketa egitea. Zubiaren orientazioa ahal bada karretera aldera pegatzea.
- Afezioak ahalik eta txikienak izan beharko dute, lurjabeei ahalik ea metro gutxien kenduz.
- Ahal bada, terrenoak galduko dituztenei lkalteordaina edo beste eremu batena sailak edukitzeko aukera ematea.
- Proiektoa idazten doan bitartean, ADIFek harreman zuzena eta jarraia mantendu beharko du Anoetako Udalarekin, bere jarraipenaren berri emanaz.

Segundo.- Solicitar a ADIF el estudio y esclarecimiento de los siguientes extremos:

- Estudio del puente. Si fuera posible su orientación se inclinará pegando a la carretera.
- Las afecciones serán las menores posibles, de forma que se privará a los propietarios de terreno del mínimo de metros posibles.
- Si fuera posible a los propietarios privados de terreno se dará opción a elegir entre indemnización o parcela en otro ámbito.
- Durante la redacción del proyecto, ADIF mantendrá relación directa y continuada con el Ayuntamiento de Anoeta, manteniéndole informado de su desarrollo.

Eta beste aztergairik ezean, alkateak bilera amaitutzat eman du iluntzeko zortziak bost gutxi direnean; guzti honetaz, nik Behin behineko Idazkariak fede ematen dudalarik.